

Landareak

JAKOBA ERREKONDO



JAKOBA ERREKONDO

Zakurraren hagina

Zakurraren putza, zakur eztula, zakurraren biolina, zakurkeria, zakur zaharra, zakur alferra, zakur gosea, zakur zuria... eta zakurraren hagina. Tolosako hagin hau ederki menderatzen ari dira inguruko nagusien zakurren pixek. Zakur muturreko nagusiak txakurra paseatzera atera eta etxepeko haginari (*Taxus baccata*) pixa. Nagusiaren muturra izango du bai txakurrak, eta laster ihartuko den haginak ere bai.

Euro beltzak beltz

AROTZAK BEGIKO DU INTXAURRA, eskuko, hatzeko, mamiko. Izugarri estimatua izan da zurgindegiatako bankuetan, lanerako mahai berezi horietan. Orgagintzan eta tornu lantegietan zur nagusietakoa izan da. Gerezia izango zen haren luxuaren aparren pare, baina lizarra, haltza, gaztaina, pagoa, astigarra, zumarra eta abarrak itzalpean zituen. Apar handikien beharrik gabe, haritza magikoa eta sekulako hagina besterik ez ditu izan nagusi.

Arotzak mamiko du intxaurra, baina, ba al da arotzik? Gaur egun ez duzu erraz topatuko arotz baten arrastorik. Badut nik lagun kuttun bat arotz, eta ero, burutik dago. Intxaurrak txora-txora eginda dauka. Azkenekoa ere ederra botea du, ez du bada intxaur beltzezko ohol erraldoia erosi! Bost metro luze, metro bete zabal eta sei zentimetro eta erdi lodi da erraldoia. Itxuragabe ordainduko zuen Portugalgo Bragança ingurutik abiatu eta batetik bestera ibili ostean Arabako zurgindegi batean atsedean hartu duena. Ez diot galdetu zenbatean kitatua duen, baina asko balio du, badakit, milaka eta milaka euro. Antzeko neurriak dituen beste ohol baten berri banuen eta saltzaileari deitu diot, Castillara, eta mutur-muturretan bota dit: han bertan hartzera 12.000 euro. Luxuetan luxua. Paregabeko mahaia egin nahi duenik bada, ohole-rako bidezidorra erakutsiko diot.

Arma luzeen kaxak edo ipurdiak egiteko ere ohiko gaia da intxaur beltza. Eskopeta, fusil eta antzekoen ipurdi edo kirten hori egiteko behar den intxaur puxketa beltz ordaintzen da. Ordainetan zera eskatzen zaio egur zatitari: lanerako, burdinari lotuko zaion aldean beta zuzenak, tiroarekin zartzetako arriskurik ez izateko eta aldamenekoen aurrean finolatzeko, atzeko alde zabalenean eta kanpoko aldera begira beta-lore ahal den ikusgarrienak. Salneurria? Mila eurotik gora erraz ordain daiteke, intxaur puxketatxo soilak!

azkonobieta
basogintza lanak

baso-berritzeak
kimatze lanak
abereentzako itxiturak

© 943 694 554 / 656 720 607
Goiballara · Azkonobieta Berri z/g
20159 Asteasu (Gipuzkoa)